

3. Eduki digitalen sorkuntza

3.3. Egile-eskubideak eta lizentziak

3.3.3. Creative Commons lizentziak

CRUE-REBIUNek egindako eta Mondragon Unibertsitateko Bibliotekak moldatutako materiala



**Eduki digitalen
sorkuntza.
Egile-eskubideak eta
lizentziak**

Creative Commons lizentziak




CRUE

REBIUN

Red de Bibliotecas Universitarias

HELBURUAK

Jarduera hau amaitzean, gaitasun hauek lortu behar zenituzke:



AURKIBIDEA

- Zer dira Creative Commons lizentziak
- Onurak
- Motak
- Nola lortu

ZER DIRA CREATIVE COMMONS LIZENTZIAK



[Creative Commons](#) lizentziak irabazi-asmorik gabeko ekimen bat dira, eta lege-kode bat ematea dute helburu, egileek beren obraren erabilera baimenduak jakinarazi ahal izan ditzaten, betiere beren eskubideak mantenduz. Funtsean, ezagutza zabaltzea dute helburu.

Beraz, ustiapen-eskubideez ari gara, ez eskubide moralez.

ONURAK

- © Egile-eskubideak mantentzeko aukera ematen dute, eta, aldi berean, beste pertsona batzuek obra bat kopianu eta banatzeko aukera ematen dute, betiere egileak erabakitzen dituen baldintzak betez.
- © Legezko prozeduretan erabil daitezke, egiletza-froga baitira.
- © Obren hedapen handiagoa lortzen da, eduki irekiak baitira.
- © Plagioaren aurka borrokatzen laguntzen dute.



CC LIZENTZIA MOTAK



Creative Commons lizentzietan, egileak baimendutako eskubideak oinarrizko lau baldintza konbinatuz definitzen dira, guztira sei lizentzia mota sortu daitezke.

Bartzelonako Unibertsitatea arduratzen da Espainian lizentzia horiek emateaz, Jabetza Intelektualari buruzko legeriara egokituta.

CC LIZENTZIA MOTAK

Creative Commons oinarritzko baldintzak:



Aitortu (BY) – Lizentziak baimendutako obraren edozein ustiapenetan egiletza aintzatestea beharrezkoa da.



Ez komertziala (NC) – Obraren ustiapena erabilera ez-komertzialetara mugatzen da.



Lan eratorririk gabe (ND) – Obra ustiatzeko baimenak ez du barne hartzen obra eratorri bat sortzeko eraldaketa.



Partekatu berdin (SA) – Ustiapen baimenduaren barruan sartzen da obra eratorriak sortzea, baldin eta lizentzia bera mantentzen badute zabaltzean.

CC LIZENTZIA MOTAK

Oinarrizko lau baldintzen konbinazioak sei Creative Commons Lizentzia mota sortzen ditu (guztietan aipatu behar da egilea):



Aitortu (CC BY): lizentzia honi esker, beste batzuek obra bat banatu, nahastu, egokitu eta eraiki dezakete, baita helburu komertzialekin ere, betiere jatorrizko sorkuntzaren egilea aintzat hartuta. Gehien onartzen den lizentzia da, ahalik eta zabalkunde handienerako gomendatzen dena.



Aitortu-Partekatu Berdin (CC BY-SA): lizentzia honek beste batzuei obra bat nahastu, aldatu eta garatzeko aukera ematen die, baita helburu komertzialekin ere, eta obra berriak termino berdinetan lizentziatuz. Wikipediak erabiltzen duen lizentzia da.



Aitortu-Lan Eratorririk Gabe (CC BY-ND): lizentzia honek birbanaketa ahalbidetzen du, helburu komertzialekin eta ez komertzialekin, baina ezin du obra aldatu.

CC LIZENTZIA MOTAK

GOGORATU! Beti aipatu behar da egilea.



Aitortu-Ez Komertziala (CC BY-NC): lizentzia honi esker, obra bat nahastu, egokitu eta eraiki daiteke helburu ez-komertzialekin, baina obra termino berberekin lizentziatu beharrik gabe.



Aitortu-Ez Komertziala-Partekatu Berdin (CC BY-NC-SA): lizentzia honek obra bat helburu ez-komertzialekin nahastu, egokitu eta eraikitzeko aukera ematen du, baldin eta sorkuntza berriak termino bereko lizentzia baten pean badaude.



Aitortu-Ez Komertziala-Lan Eratorririk Gabe (CC BY-NC-ND): lizentzia honek beste batzuek obrak deskargatu eta partekatu ahal izatea baino ez du ahalbidetzen, baina ezin dira inola ere aldatu eta ezin dira komertzialki erabili. Lizentziarik murriztaileena da.

CC LIZENTZIA MOTAK

creative commons

Zer dira, ordea, Creative Commons lizentziak?

- Legezko balioa duten dokumentuak
- Obrei doan gehitzen zaizkie
- Obrak beriz erabiltzeko eta zabaltzeko baldintzak zehazten dituzte

Erraztasunak ematea egileek edo eskubideen beste titular batzuek modua izan dezaten doan eta mundu osoan hainbat erabilera baimentzeko, jabetza intelektualari buruzko legediak aitortzen duenaz harago

	CC BY		CC BY-SA
	CC BY-NC		CC BY-NC-SA
	CC BY-ND		CC BY-NC-ND

Bilatu CC duten obrak <http://creativecommons.org>

Rebiunek eta CRUEK Creative Commons lizentzien erabilera sustatzeko egindako infografia.

Lizentzia motak

Nola funtzionatzen dute?

Aipatu egin behar da beti!

Egilearen aitortza + 6 konbinazio

- Ez da komertziala
- Ez du obra eratorririk
- Berdin partekatu

CREATIVE COMMONS

LIZENTZIEN HAUTATZAILEA: © Aston university (CC-BY) Egoitza: Dibujando.net (CC-BY)

INTERESATZEN ZAIT CC LIZENTZIA BAT ERABILTZEA?

Gehien interesatzen zaizun Creative Commons lizentzia erabil dezakezu:

- Zure lan akademikoetan (GAL, MAL, Karrera Amaierako Proiektua, etab.), blogean, webgune pertsonalean,...

Zeintzuk dira abantailak?

- Interneten ikusgarritasuna handituko da.
- Zuk aukeratzen duzu zer partekatu eta berrerabili, egokitzen jotzen dituzun baldintzak ezarriz.



LIZENTZIAK NOLA LORTU

Zure lizentzia aukeratzeko [Creative Commons](#) webgunera jo behar duzu, eta bertan urrats batzuk egin beharko dituzu:



LIZENTZIAK NOLA LORTU



Lehenengo atalean, gure obrarako nahi ditugun erabilera baimenduak markatuko ditugu, gure obraren edo obra eratorrien erabilera komertzialak baimendu nahi ditugun kontuan hartuta:

Características de la licencia

Sus selecciones en este cuadro actualizarán el resto de cuadros de la página.

¿Quiere permitir que se compartan las adaptaciones de su obra?



Sí No Sí, mientras se comparta de la misma manera

¿Quiere permitir usos comerciales de su obra?



Sí No

LIZENTZIAK NOLA LORTU

Aukeratutako baimenen arabera, lizentzia mota bat edo beste bat lortuko dugu. Kasu honetan, gure obraren egokitzapenak partekatzea eta erabilera komertzialik ez egotea erabaki dugu. Hau da, aitorten-ez komertzialeko lizentzia bat (CC-BY-NC):

?

Licencia seleccionada

Reconocimiento-NoComercial 4.0 Internacional

Esta no es una licencia de Cultura Libre.



LIZENTZIAK NOLA LORTU



Bigarren urrats batean, eta aukeran, zabaldu nahi dugun lanari buruzko metadatu irakurgarriak gehitu ahal izango dizkiogu HTML kodean:

¡Ayude a que se reconozca su autoría!

Esta parte es opcional, pero rellenarla agregará metadatos legibles por máquinas en el código HTML que se le sugiere!

Título de la obra	<input type="text"/>	?
Para esta obra, reconozca a	<input type="text"/>	?
Reconozca la autoría mediante la URL	<input type="text"/>	?
URL fuente de la obra	<input type="text"/>	?
URL con más permisos	<input type="text"/>	?
Formato de la obra	<input type="text" value="Otros / Múltiples formatos"/>	?
Marcaje de la licencia	<input type="text" value="HTML+RDFa"/>	?

LIZENTZIAK NOLA LORTU

Azkenik, aukeratutako lizentzia motari buruzko informazioa gehitu ahal izango dugu gure web orrian, blogean eta abarretan, eta aukeratutako lizentzia mota dagokion ikurrarekin batera agertuko da. Tamaina aukeratu ahal izango dugu:

?

¿Tiene una página web?



Este obra está bajo una licencia de [Creative Commons Reconocimiento-NoComercial 4.0 Internacional](https://creativecommons.org/licenses/by-nc/4.0/).

¡Copie este código para informar a sus visitantes!

```
<a rel="license"
href="http://creativecommons.org/licenses/by-nc/4.0/">
- <http://www.picdrome.com/>
- <https://openclipart.org/>
- <http://photopin.com/>
- <http://openphoto.net/>
- <https://commons.wikimedia.org>
- <https://www.flickr.com/>
- <http://www.public-domain-photos.com/>
- <http://www.freedigitalphotos.net/>
- <http://www.metmuseum.org/art/collection>



**Mondragon  
Unibertsitatea**

Biblioteka

Zalantzarik baduzu, galdetu zure [bibliotekan](#):



**Basque Culinary Center  
Biblioteka**

Juan Abelino Barriola pasealekua, 101  
20009, Donostia, Gipuzkoa.  
T. 943574514  
biblioteca@bculinary.com

**Enpresa Zientzien Fakultatea  
Biblioteka**

Ibarra Zelaia, 2  
20560, Oñati, Gipuzkoa.  
T. 943718009  
biblioteca.enpresagintza@mondragon.edu

**Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea  
Biblioteka**

Dorleta, z/g.  
20540, Eskoriatza, Gipuzkoa.  
T. 943714157  
biblioteca.huhezi@mondragon.edu

**Goi Eskola Politeknikoa  
Biblioteka**

Campus Iturripe. Loramendi, 4. 20500 Arrasate – Mondragon, Gipuzkoa.  
Campus Orona Ideo. Fundazioa eraikuntza, Jauregi Bailara, z/g. 20120 Hernani, Gipuzkoa.  
T. 943794700  
biblioteca.mgep@mondragon.edu